

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakaria Construcciones Ecay enpresaren 25<sup>o</sup> urteurrenaren ospakizunean izan da

*Enpresa 1987. urtean sortu zen eta eraikuntza, mantentze, birgaitze eta herri lan zerbitzuak eskaintzen ditu*

Miércoles, 26 de septiembre de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria Construcciones Ecay enpresaren 25<sup>o</sup> urteurrena ospatzeko gaur arratsaldean Gorraitzeko Gazteluan, Eguesibarren, egin den ekitaldian izan da.

Bertan izan dira halaber Juan Luis Sánchez de Muniáin Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Kultura,

Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria eta enpresako zuzendariak, horien artean, Iñaki eta Francisco Ecay.

Enpresa 1987. urtean sortu zen eta honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: eraikuntza (besteak beste, Vegamayor-Floretten IV. gamako produktuak ekoizteko nabea eta CENERen kontrol zentroa eraiki ditu) mantentze eta birgaitze lanak (Nafarroako Unibertsitate Publikoaren areto ospetsua, Burlatako Iturrondo hezkuntza okupazionalako zentroaren birgaitzea, eta abar) eta herri lanak (Aranzadiko kirol instalazioko inguruaren urbanizazioa, Lesakako Frain auzoaren ur hornidura, eta abar).

Enpresak Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarteak (AENORek) emandako hainbat ziurtagiri ditu kalitatea, ingurumena, lan segurtasuna eta gizarte arduraren arloetan.



Barcina Lehendakaria Francisco (ezker) eta Iñaki (eskuin) Ecay-rekin.